

OLERKARI

Gaztetan asi jakun idazten. Zornotza'ko "Jaungoiko-Zale", "Ekin" eta "Karmen'go Argia"-n datoz Lontzi Abaren lanak. Argi ta garbi idazten dau, joskera ederrean. Atsegin zituen esaldi luze samarrak, bai itzaldietan eta bai argitaratzen ebazan lanetan. Naikoa idatzi eban. "Karmen'go Argia"-n, esaterako, illero emoten euskun zertxobait, prosaz eta bertsoz. Aldizkari au sortu ta asi zanean, leenengo zenbakian eta gero be bardin, izpar arloan ekin eutson gogotsu. Izparlari —gaur gazetari esan bear ei dogu— zeatza zan, eta zeregin ori be lepoan dauanak egin bear dauanez, bere egitekoa bete eba-la uste dogu. Ak itxita, albiste pilloak

daukaguz or-emen euskal elerti edestirako jakingarri jakuzanak.

Naiz-ta berez A. Lontzi esaldi luze zalea izan, pentsamentu laburrak, motzak, ipuin antzera askotan, eskiñi oi eutsozan irakurleari. Neurtzitz asko ditu zornotzar idazle onek, erreztasun izugarria eukan-eta bertsoak opiltzeko. Idazti eder bat osotzeko lain poesi aurkitu daikaguz gorago aitatu ditugun iru aldizkarietan.

Orrez gaiñ, Txile'n egoala, ipuin liburu bi argitaratu euskuzan bertsoz. Ona: 1) *Lontzi Aba'ren Ipuintxuak* (Santiago de Chile, 1947'g. Mikel Deunaren egunean). 100 orrialde. Eun olerkitxo dira guztira, politico era-tuak. Eta 2) *Lontzi Aba'ren bigarren*

Ipuintxoak (Santiago de Chile, 1948). 100 orrailde. Eun poesi labur.

Ikuspegi zabala dau geienez poetak. Baita Aita Lontzik be. Praille zanez, erlejiño gaiak erabiltea eskatzen eutson aria geienik adierazoagaitik, ba-ebazan beste alderantzizko ikuspegi ta puntuak be atsegin jakozanak, aitatu doguzan umetxoentzako ipuiñak adibidez. Ia-beti, baiña, Jainkoa, eliza, maitasuna ta olakoak ziran.

Ona au "Maitasun-erroa" deritxona, "Karmen'go Argia"-ren 4'gn. zenbakian, 1931gneko jorraillean datorren bost estrofakoa. Irakurri:

"Agindu zeustan zeruak, Jauna, enau ekarten Zugana,
ta gaiztokiko su-gar bildurraz eztot lagatzen obena;
baña maitasun zintzo sutsuaz gartu zeustandik barrena,
Zu zara nire biotzarentzat maite ta kutun on-ona.

Zure Biotzaz nire biotza maitasun gar bat egiñik
begiak itxi edegi baten ipinteko oso osorik,
ez al da naiko Gurutz orretan ikustea Zu eskeirik,
esku ta oñak iru untze lodiz nire onarren josirik?

Zure gorputza ikusi dauna odolez oso bustita,
burua zear beatzeraño errekatxo bat eginda,
maitasunaren maitatasunez biotz guztia erreta,
Zure aurrean apaltasunez ez da agertuko etzunda?

Nire biotzak eztau maitetu egundo Zure izenik,
bide onetik dabilzanentzat daukozulako zorunik:
nire biotzak bere maitatzat artu zenduzan unetik,
sari-zigorren ardura barik maitatu zaitu gogotik.

Bide nasaitik doazanentzat ezpa'zeunko be zigorrik,
gaur letxe bardin egingo neuke alde gaiztoki bidetik,
ta agindu zeusten sari joria emon ez arren poz-pozik
ludia zear nabillan arte Zu maitetuko zaitut nik".

Neurkerak, guztiz ezbardiñak txandaka egin oi ebazan; geien alan be zortziko nagusia zan aren lumak landua. Egoki etorren, antza danez, bere izakeraz eta idaz-jarioz, olerki onetatik ikusi daikagunez. Izlari bezela, bete ta oparotsu zalako, Kikeron deitzen geuntson.

Eredu lez irakur "Gaiztoen Zorionak" eritxon artikulutik artutako zatitxo au. "Goxetik gaberaño —idaz-

ten dausku— lanean sendo dierduen idi ala beyak, ganeko egun baten aragitegian ilteko, kortan beste zeregin berik gizentzen dagoan lagunari begi txarrakaz begiratu ta ugazabari ekin bearrik ezpa'dauko, atsekabe, neke, oñaze, txirotasun eta beste zoritxarpean ludian bizi diranak ba, aberastasun-ondasunen erdian, munda zear, arrokeriz kukurrukuka ta makalak ostikoperatzen dabilzan ari-

ma gaizto, zantar, lapur ta lotsa-galdukoari iñartsiz begiratu ta Jaungoikoari ekin bearrean, gaiztoari errukitasunaz begiratu da jaungoikoari biotzik eskartsu ta zintzoena agertu bear dautse".

Ez esan gero, irakurle, euskeraz ezin leitekela idatzi esaldi luzerik. Eta ondo apaindutakorik.

AITA ONAINDIA